

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak LHren garrantzia azpimarratu du Elikagaien Industriako zikloak irakasten dituen San Adriango BHLra egindako bisitan

Duela gutxi esnekien linea abiarazi da, ikastetxeko nabe pilotuan

Martes, 03 de abril de 2012

"Nafarroako Gobernuak komunitateko gizarteari Lanbide Heziketaren balio erantsia azpimarratu nahi dio, eta ikasle hauen aurrean ekimen ekintzailea sustatu nahi du, bai eta enpresekiko eta profesional kualifikatuenekeko koordinazioa lortu ere".

Hala laburtu ditu Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak, San Adriango Ega BHLra egindako

bisitan, Foru Gobernuak Lanbide Heziketaren alorrean dituen helburuak. Barcina Lehendakariak, gainera, adierazi du Lanbide Heziketa "funtsezkoa izan dela Nafarroaren garapen ekonomikoan eta gaur egun hala izaten jarraitzen duela", horren adibide dugu "ikastetxe honetan ikasketak amaitzen dituzten ikasleen ehuneko ehunek lana topatzen duela. Une honetan izan dezakegun albisterik onena da".

Barcina Lehendakaria, hain zuzen, San Adriango BHLra jo du ikastetxeak duen instalazio pilotuan jarri berri duen esnekien linea berria dela eta; bertan Lanbide Heziketako zenbait ziklo ematen dira, haien artean Elikagaien Industriena. Izan ere, lanbide-familia horretako zikloak eskaintzen dituen Nafarroako ikastetxe bakarra da, eta ziklo horietan aurten ehun bat ikasle daude.

San Adriango Ega BHLra egindako bisitan, Lehendakariarekin batera zeuden: Hezkuntzako kontseilari José Iribas Sánchez de Boado, Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateetako zuzendari nagusi David Herreros Sota, udalerriko alkate Emilio Cigudosa García eta ikastetxeko zuzendaritzako taldea, Javier Estarriaga Ibiricu zuzendaria buru izanik. Elikagaien Industrien nabe pilotura arteko ibilbidean Lehendakaria geratu eta DBHko Hezkuntza bereziko ikasgela bat bisitatu du.



Esnekien linean, gazten mahaian. Barcina Lehendakaria (erdian) Arancha Erdociáin irakaslearen eta ikasleen ondoan.

Ekitaldian ere izan dira zonaldeko industrietako zenbait ordezkari. Izan ere, Lehendakariak bere hitzetan haien presentzia nabarmendu du, eta zentroak zonaldeko elikagaien enpresa handiekin duen lankidetzaz estua aipatu du; enpresa horiekin praktikak egiteko eta ikasleekin lan egiteko 100 hitzarmen sinatuta daude. Alde horretatik, adierazi du bere Gobernuaren benetako asmoa dela ikasgelak eta enpresak elkar hurbiltzea, eta ikasle nafarrak berrikuntza eta ekintzaitzaren mentalitatearekin prestatzea.

Bisita amaitu da instalazio pilotu horretan egindako produktuekin prestatu den aperitiboarekin.

Elikagaiak egiteko planta pilotua

San Adriango Ega BHIan 662 ikasle daude, haien artean DBHko ikasleak (441), Batxilergokoak (110) eta Lanbide Heziketakoak (92), eta baita gaueko ordutegia duten 20 bat heldu ere. Zehazki, Lanbide Heziketakoek Administrazioa eta kudeaketa (zehazki, `Administrazio Kudeaketa´-ko gradu ertaineko zikloa) eta elikagaien Industrien familietako zikloak egiten dituzte. Azken lanbide-familia horretan gradu ertaineko ziklo bat da (`Elikagaien produktuak egitea´) eta beste bat goi-graduakoa (`Elikagaien industriaren prozesuak eta kalitatea´). Horri, lanbide-familia honetako hasierako lanbide-kualifikazioko bi programa (PCPI) gehitzen zaizkio: bata, `Oinarrizko elikagaien industriaren laguntzaile´-aren oinarrizko modalitatearena, eta bestea, `Elikagaien industria bereziaren laguntzaile´-aren modalitate Bereziarena.

Elikagaien Industrietan ikasleak prestatzeko, ikastetxeak honako hauek ditu: elikagaiak egiteko plata pilotu bat, upategi bat, mikrobiologiako laborategi bat eta laborategi fisiko-kimiko bat, eta mekanizatu nahiz elektrizitateko tailerrak. Aurten arte planta ekipatuta zegoen: hestebeteak egiteko haragi-produktuen linea batekin, kontzentratuen linea batekin marmeladak eta saltsak egiteko, era guztietako landare-kontserbak egiteko linea batekin, okindegiko produktuak egiteko linea batekin, eta aldatutako atmosferak dituen terrinak ontziratzeko makina batekin aurrekozinatuak egiteko eta bosgarren gamako produktuetarako.

Horri guztiari orain gehitu zaio, esnekien produktuak egiteko linea bat, beharrezkoa zena bi zikloen curriculum berrietan edukiak sartzen baitira esnekien produktuak egitean. Hala, ikastetxeak jada duen esnekien linea berri hori pasteurizazio eta gatzatzeko upel bat da tenperaturaren kontrolarekin eta mozteko liren eta pala irabiagailuen akoplatzeekin. Bertan egiten da esnearen pasteurizazioa irabiatzearekin tenperatura homogeneizatzeko, gatzatzea tenperaturaren kontrolarekin, mozketa liren abiadura erregulatuz... Gainera, esnekien lineak gatzak moldatzeko xukatzeko mahai bat du prentsaketa bikoitzeko prentsa pneumatiko batekin eta presioa erregulatzeko. Halaber, lineak lehortegi experimental bat du, eta bertan heltzen dira gatzak.

Izan ere, ikasturte honetan ekipoen prestatzea egin da, eta ardi nahiz behiaren esnearekin lehen gatzak egin dira. Ikasleek jada Burgos eta Philadelphia erako gazta freskoa egin dute

Ate irekien jardunaldia

Ikastetxeak iragarri duenez, apirilaren 18an, asteazkena, 16:00etatik 20:00etara, ate irekien jardunaldi bat egingo da ikastetxeak eskaintzen dituen ikasketei buruzko informazioa emateko, Lanbide Heziketan bereziki. Jardunaldia interesa duen edonorentzat zabalik dago eta ez da beharrezkoa aurrez izena ematea.

Galería de fotos



Hezkuntza Bereziko ikasgelako sukaldaritzako tailerrean. Lehendakaria eta Iribas kontseilariaren atzean, ikastetxeko zuzendari Javier Estarriga.



Upategi pilotuan, Lehendakariaren ezker aldean, Hezkuntzako kontseilaria eta zuzendari nagusia.



Esnekien plantan. Lehendakaria eta kontseilaria departamentuko arduradun Camino Zabaleta irakaslearen azalpenak entzuten.



Lehendakaria okindegiko linean ikasleak nola oratzen duten ikusten.